

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

2.200 agente inguru izango dira hilaren 24ko hauteskunde-egunean Nafarroako segurtasuna zaintzen

Foru Komunitateko polizietako ordezkariak gaur goizean bildu dira dispositibo prestatu eta koordinatzeko

Lunes, 11 de mayo de 2015

Nafarroako polizietako 2.200 agente inguru izango dira maiatzaren 24ko hauteskunde-eguneko segurtasuna zaintzen, Segurtasun Batzordeak gaur onartutako dispositiboaren arabera.

Gobernuko Ordezkaritzan egindako bileraren buru Gobernuak Nafarroan duen ordezkari Carmen Alba eta Lehendakaritza, Justizia eta Barneko kontseilari Javier Morrás izan dira. Bertan izan dira ere, Nafarroako Gobernuko Barneko zuzendari nagusi Francisco José Fernández Elizalde; Iruñeko Udaleko Herritarren Segurtasuneko zinegotzi-ordezkari Gabriel Viedma eta polizietako ordezkariak.



Gaur goizean egindako bileraren une bat.

Polizia ezberdinek hauteskunde autonomikoak, udaletakoak eta kontzejuetakoak direla-eta (maiatzak 24) abiaraziko den dispositibo berezia erabaki dute. Beharrezko koordinazio-alderdiak zehaztu dira, hauteskunde-eguna nahiz aurreko egunak normaltasun osoz egin daitezen.

Maiatzaren 24rako, bozketa-eguna, 2.200 agentek lan egitea aurreikusten da. Haietatik, 486 polizia nazionalak, hautesleketan nahiz Iruña, Tuter, Burlata eta Atarrabiako kaleetan zabalduko direnak. 450 foruzain izango dira Iruñean, Tuteran eta Foru Komunitateko beste udalerrri batzuetan. Bestalde, Iruñeko Udaltzaingoko 270 agente egongo dira, eta haietatik 150 hautesleketako segurtasunaz arduratuko dira; gainerakoek ohiko lana egingo dute hirian. Azkenik, 1.000 guardia zibil ere arduratuko dira Nafarroako udaletako segurtasunaz.

Polizia guztiek aurretiazko zaintza eta prebentziozko lanak egingo dituzte Nafarroako 358 hautesleketan, azken horiek maiatzaren 24an atearazirik gabe ireki ahal ditzaten. Jardunaldian zehar, agenteek, hautestontziak eta boto-paperak babesteaz gain, dena legea betez joan dadin lan egingo dute; horrekin batera, herritarrek boto-eskubidea Nafarroako lurralde guztian prestatutako 966 hauteskunde-mahaietan aske egikaritzea bermatuko dute